

GORKA ESTRADA



Ana Castillo, *Girasoles silvestres* filmeko protagonista

ULISES PROUST



Olivia Wilde disfruta del público donostiarra



Penélope Cruz, fiel a su cita con el Festival de San Sebastián

ULISES PROUST



José Luis Rebordinos eta Institut Lumière-eko zuzendari Thierry Fremaux, elkarrekin

GARI GARAIALDE



Joaquín Sabina, Fernando León de Aranoa y Leiva han llegado a la ciudad

GARI GARAIALDE



Fernando Méndez-Leite acude por primera vez como presidente de la Academia de Cine

GARI GARAIALDE

Ez dakit ondo ulertu dudan

MIKELE LANDA EIGUREN

Gorputza berriro sentitzen hasi, jesarrita zaudela konturatu eta sengundo batzuk behar izan dituzu oinak lurrean jarri eta hankak berriro tentetzeko. Begiek ere beharko dute tarte bat piztu berri diren argiei neurria hartzeko. Ez zaude bakarrik, eta une labur batez jendetzak inguratzen zaituela ohartzeak arnasa pausarazi dizu. Errepidean barrena minutu luzez gidatzen egon ostean, eskuak bolantean dituzula gogorarazten dizun unean bezala. Eskerrak ez zaren apurka-apurka bere onera itzultzen ari den bakarra. Besaulki-ilaren arteko tartea estuegia izateak bere alde onak ere badituela pentsatu duzu orduan, aldamenekoak ateratzen diren bitartean itxarotera behartzen zaituelako espaziorik ezak, eta ikusiko duzun hurrengo filma hasteko den-

BARRUNBETIK



bora gutxi falta den arren, gorputzak azkarregi ez ibiltzea eskatzen dizulako.

Erojuari begiratu eta komunera sartu zara ura edatera. Txorrota zabaldu eta burua makurtzearekin batera entzun duzu: "Zer? Zer iruditu zaizu?", "Berezia, gustatu zait, baina

ez dakit ondo ulertu dudan". Ura edanda, atera zara kalera eta orain bai pausoa bizkortu duzu, Tabakaleratik Truebara hamar minutu baino ez badaude ere, berandu zabilta jada. Mandasko Dukearen pasealekuan barrena aurrera zoaz eta buruan bueltaka darabilzu oraindik komunean entzun berri duzunaren oihartzuna. Elkarrizketa berbera askotan entzun duzun arren, gaur erantzuna erabat arrotza egin zaizu. Barrunbeetara sartu zaizkizu azken bi ordu luzeak. Inoiz ezagutuko ez duzun lekuan egon zara. Sekula ezagutuko ez dituzun pertsonak aurrez aurre izan dituzu. Enkoadraketa batetik bestera, bereizi ezin diren soinuei segika... Filmari eskatuko zeniokeen azken gauza, arrazoimenari soilik men eginez, ulertzeko egina izatea da. Joan den asteburuan, izerdi-patsetan, gozatu zenuen kontzertuari eskatu ez zenuen moduan. Zinema esperientzia fisikoa da.